



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko abenduaren 20an

28 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

- 2000ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak baztertutako osoko emendakina (3. or.).
- Zerga neurriei buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako emendakina (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere poza azaltzen du Diputatuen Kongresuko Mahaiak presaz tramitatutako duelako Atzerritarrei buruzko Legea aldatzeko proiektua, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte- eta osasun-laguntzari buruzko plana egin dezan, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da departamentuarterko batzorde bat sor dezan tailer-eskolei buruzko plan bat egiteko, «EA/EAJ-PNV», «CDB», «IU-EB» eta «EH» Parlamentuko Taldeek aurkeztua (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Komunitateko ingurugiroaren egoerari buruzko informazio orokorra igor dezan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontrolak egin ditzan tatuajeak egiten diren lekuetan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Adierazpen politikoa. Horren bidez Iñigo Egiluz kooperante euskaldunaren heriotza eta Jorge Luis Mazo apaiz kolonbiarrarena argitzeko eskatzen da. Bozeramaileen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Adierazpen politikoa, ETak su-etena bukatutzat eman duela-eta (10. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Adingabeei alkohola saltzea eta horiek alkohola edateari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak egin (11. or.).

- Eraikitako eta aurreikusitako parke eolikoei buruzko galdera, José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena Foru Parlamentario jaunak egina (12. or.).
- Zainketa berezien unitate mugikor medikudunean eramandako Aragoiko gaixoei buruzko galdera, Elena Torres Miranda foru parlamentario andreak egina (12. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

- 1999ko azaroan izandako alta eta baja (14. or.).
- José Andrés Burguete Torres foru parlamentario jauna «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentuko Taldean sartzea (14. or.).

**H SAILA:**

**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolaketari buruzko Erregelamenduaren 13. eta 14. artikuluen aldaketa (15. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **2000ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua**

### *OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOKO EMENDAKINA*

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko abenduaren 2an egindako Osoko Bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra», «Euskal Herritarrok» eta «Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco» Parlamentuko Taldeek 2000ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko emendakinak baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordera igorri da.

Iruñean, 1999ko abenduaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

## **Zerga neurriei buruzko Foru Lege proiektua**

### *AURKEZTUTAKO EMENDAKINA*

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, zerga neurriei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu zaion emendakina Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Proiektu hori 1999ko azaroaren 19ko 21 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko abenduaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA**

#### **1. EMENDAKINA**

##### **«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»**

##### **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren xedapen gehigarria kentzeko enmendakina.

Zioak: Uste dugu xedapen gehigarri horretako zerga-hobaria luzatzea ez dela beharrezkoa eta ezin dela justifikatu egungo egoera ekonomikoan.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere poza azaltzen du Diputatuen Kongresuko Mahaiak presaz tramitatuko duelako Atzerri-tarrei buruzko Legea aldatzeko proiektua**

*«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere poza azaltzen du Diputatuen Kongresuko Mahaiak presaz tramitatuko duelako Atzerri-tarrei buruzko Legea aldatzeko proiektua".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko abenduaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko abenduaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**MOZIOAREN EDUKIA**

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu du Erregelamenduko 192. artikuluari eta ondorengoei jarraiki, Nafarroako Parlamentuak onetsi eta erabakia Diputatuen Kongresuari igor diezaion.

Atzerri-tarrei buruzko legea ez da egokitu gure herriko etorkinen egoerara eta pertsona horiei oinarritzko giza eskubideak aitortzeko eskaera demokratikoetara, eta horrek ezagunak diren arazo ugari ekartzen ditu.

Diputatuen Kongresuko Kosntitutio Batzordeko Ponentziak amaitu du jada atzerri-tarrei buruzko lege berri baten aurreproiektua; beraz, badirudi, gutxi barru-edo tramitatu eta legegintzadia amaitu aurretik onetsiko dutela. Hala ere, gobernuaren inguruko zenbait sektorek adierazitako eragozpen

justifikaezinek kinka larrian jarri dute azken aste hauetan proiektuaren presazko tramitatzea. Horrek dakar, praktikan, lege hori legegintzaldi honetan onestea ezinezkoa izatea.

Diputatuen Kongresuko Mahaiak, azkenik, azaroaren 10ean eginiko bilkuran, presaz tramitatzea erabaki du Atzerri-tarrei buruzko Legea aldatzeko proiektua. Horrek nahikoa berme beharko luke izan aipatu legea legegintzaldi honetan onesteko.

Hala ere, proiektuaren tramitazioak zenbait oztupo gairitu behar ditu Senatuan, eta, beraz, ohartarazi egin nahi dugu zeinen ondorio larriak izanen litzuzkeen konpromiso hori ez betetzeak Nafarroako Foru Komunitatean egun bizi diren milaka atzerri-tarrentzat; horientzat beharrezkoa da erabat legearen babesa izatea oinarritzko giza eskubideak izan ahal ditzaten, hala nola osasuna edo hezkuntza.

Gure komunitatean 8.000ren bat atzerri-tar dagoela uste da; horietarik 2.000k ez du egoitzabaimenik. Kopuru horrek azkar egiten du gora, eta bidertu egiten da urtez urte. Cáritas-en datuen arabera, erakunde horrek 1998 urte osoan 1.500en bat etorkin berriri eman zien laguntza. Aurtengo lehenengo zortzi hilabetetan lagundu zituzten jada 1.500 etorkin (% 80 Hego Amerikakoak dira, eta gainerako % 20 Afrikakoak erdiak eta Europa Ekialdekoak beste erdiak).

Hortaz, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeak hurrengo erabaki proposamena aurkeztu du:

1.- Nafarroako Parlamentuak bere poza adierazten du Diputatuen Kongresuko Mahaiak hartutako erabakiarengatik, hots, Atzerri-tarrei buruzko Legea aldatzeko proiektua presaz tramitatzeko erabakiarengatik.

2.- Beste herrialdeetako pertsona ugari bizi diren komunitate bateko ordezkari garenez, ohartarazten dugu presakoa dela etorkin horien egoera modu egokian arautzea, izan ahal ditzaten, gure herrian, gizaki diren aldetik dagozkien eskubide funtsezkoenak, osasuna eta hezkuntza bereziki.

3.- Horren ondorioz, Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Diputatuen Kongresuko taldeek izan

dezatela ardura politiko eta soziala, tramitazioa ez dadin atzeratu eta oraingo legegintzaldi hau amaitu aurretik onets dadin atzerritarrei buruzko lege berri bat, non modu zabalenean jaso daitezten etorkinen eskubideak.

Iruñean, 1999ko azaroaren 23an.

Bozeramailea: Juan José Lizarbe Baztán

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da gizarte- eta osasun-laguntzari buruzko plana egin dezan**

### *«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da gizarte- eta osasun-laguntzari buruzko plana egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko abenduaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko abenduaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Juan José Lizarbe Baztán "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko bozeramaileak, Gizarte- eta Osasun-laguntzari buruzko Foru Plan bat prestatzeko eskatzen duen mozioa aurkeztu du, Biltzarraren Erregelamenduko 192. artikuluari eta ondorengoei jarraiki, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta, hala erabakiz gero, onesteko.

Gizarte- eta osasun-laguntzaren beharra dago; izan ere, biztanleak zahartzen ari dira eta jaiokuntza-tasa beheraka doa; gainera, beste gaixotasun batzuk sortu dira: gaitz psikologiko-psikiatrikoak, zenbait patologia dituzten adimen-gaixoa, gaixo

kronikoak, gaixo minusbaliatuak, pertsona baztertuak eta indarkeria jasaten duten emakumeak.

Adimen gaixotasunek garrantzia hartu dute, gaixo anitz dagoelako eta asko hiltzen direlako.

Gaixoa zaintzen dituzten familiek (batez ere emakumeek egin dute lan hori) arazo handiak daukate ahalegin horretan, eta gehienetan ez dute ia prestakuntza teknikorik ezta ekonomia indartsurik ere; horrek, maiz, gizarte-desintegrazioa eta familiaren desoreka dakartza.

Arazoak konplexuak dira eta, horren ondorioz, gaixo hauek behar dituzten laguntzak ere konplexuak dira, eta beharrezkoa da gizarteratzea erraztuko duen gizarte- eta osasun-laguntzako sare bat egotea.

Erreforma psikiatrikoak ekarri du familia askok titularitate pribatuko arlo txit garestira jotzea, beste tratamendu batzuen bila; horren arrazoia izan da aukera handirik ez egotea erdimailako egituretan eta gizarte-baliabideetan, baliabide malgurik eta askotariko beharrei erantzuteko modukorik ez egotea.

Plan honek definitu egin beharko ditu gizarte- eta osasun-zerbitzuak: horien finantziaketa, kudeaketa eta eskaintzen dituzten laguntzak zehaztu. Gaixo bakoitzak baliabiderik egokiena izan dezan, askotariko aukerak eta behar besteko baliabideak dituen zerbitzu-sarea agertu beharko da planean: ospitale-zentroak, erresidentzia-zentroak, errehabilitazio-zentroak, tutoretzapeko pisuak, eguneko ospitaleak, gizarte- edo osasun-laguntza nork bere etxean, errehabilitazioa eta gizarteratzea erraztearren.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernua premiatzea, 3 hilabeteko epean Gizarte- eta Osasun-laguntzari buruzko Foru Plan

bat egin dezan.

Iruñean, 1999ko azaroaren 30ean

Bozeramailea: Juan José Lizarbe Baztán

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da departamentu- arteko batzorde bat sor dezan tailer-eskolei buruzko plan bat egiteko**

«EA/EAJ-PNV», «CDB», «IU-EB» ETA «EH» PARLAMENTUKO TALDEEK AURKEZTUA

«EA/EAJ-PNV», «CDN», «IU-EB» eta «EH» Parlamentuko Taldeek ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da departamentu-arte-ko batzorde bat sor dezan tailer-eskolei buruzko plan bat egiteko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko abenduaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko abenduaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

"Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco", "Nafarroako Demokraten Elkargunea", "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" eta "Euskal Herritarrok" Parlamentuko taldeek, Biltzarreko Erregelamenduaren 192. artikulua eta hurrengo babesean, hurrengo mozioa aurkeztu dute.

Tailer-eskolak 80ko hamarkadan zehar sortu ziren, eta eskola-porrot ugariekin arduratuta zeuden gizarte-taldeak dituzte jatorri; izan ere, porrot horrekin batera baitzetozen langabezia, drogak hartzea, delitugintza. Horregatik erabaki zuten baliabideak sortzea arazo horiek zituzten gazteak hartzeko, modu horretan kalea eta geldi egoteari utzi, lanbide bat erakutsi eta izan zezaten gizarte-ratze normala.

Gazte horiek ahalegin intelektualekin zerikusia zuen edozer errefusatzeko zutenez, lanpostu bat lortzeko balio izanen zien ezagutza persona-

lak hobetzeko hainbat modu pentsatu ziren; uste izan zen egokiena tailerra zela, eskuekin eginiko lana baita nagusi eta zenbait oinarriko ohitura pertsonal hartzen laguntzen baitu, lana eta elkarbizitzarekin zerikusia dutenak hain zuzen.

Tailer-eskolak egokitzen joan dira hartutako ikasleen berariazko beharretara. Gaur egun, tailer-erara joaten direnak institutuetatik datoz zuzenean; hala ere, horietarik batzuk noizbehinka besterik ez dira etortzen eta, batzuk, batera ez. Ikasketetan duten desfaseak, eta dituzten arazoek -pertsonalak, sozialak, eta jokabidezkoak-, modu batera edo bestera, hezkuntz-sistematik "kanpo" utzi ditu. Beste zenbait ikasleek ez du maila hori lortu sistemaren barrenean eta baztertuta ikusi dituzte beren buruak uste baino lehen. Gazte horiek porrot egin dutela sentitzen dute; orokorrean, zapaltzailetzat hartzen dute eskola egitura, eta ez die erantzunik ematen dituzten interes eta beharrei, eskolak ez die proposatzen aktore gisa parte hartzeko aukerarik emanen dien jarduerarik, eta, beraz, ikasleak izugarriko interesik eza erakusten du eskolako edukien aurrean eta kultur baloreen aurrean.

Gazteak bere burua gero eta okerrago ikusten du, dituen harremanak ere okerragoak bihurtzen dira; kasu horietan, banan banako hezkuntza benetan bihurtzen da nahitaezko, eta hezitzaileek sekulako ahaleginak egin behar izaten dituzte ikasleek motibazioa lortu ahal dezaten, horien interesak bideratu eta mutiko bakoitzaren alderdi onak sustatzeko.

Tailerren metodologiaren oinarria da norbaitek irakatsiz ikastea, gaztea eroso sentitzeko moduko egoera batean, eta ikasleari aintzat hartzea dituen balioak, eta uler dezala esaten zaiona, ikaslearen interesa lortu eta dituen ezagutzak eta trebetasunak erabili ahal ditzala; espazio horretan, ezagutza teorikoak ez daitezela izan nagusi eta mutiko-ek balio dutena erakutsi ahal dezatela, horrek ia

bat-batean hobetzen baitu mutikoen buruestima eta eduki praktikoak ikasteko nahia erakusten hasten dira; horrela, arazoaren beste alderdi batzuk lantzen has gaitezke, zeinek garatzen lagunduko baitiete eta modu normalean gizarteratzen.

Zentro horiek hainbat programa daramatzate aurrera (Lanbide hastapeneko programak, curriculum egokituko unitateak -UCAk- eta abar), eta denbora asko eman behar izaten dute finantziazio bila.

Egun, finantziazio bideak bat baino gehiago dira: Nafarroako Gobernua -Hezkuntza eta Ongizate Departamentua-, toki entitateak, enpresak, irabazi asmorik gabeko entitateak, eta herritarrak.

Gizarteak gaur jartzen dizkigun erronka berriei aurre egiteko, zenbait arazo ditugu:

1.- Finantza arazoak: Ez dago behar adinako egonkortasunik programen finantzaketan. Funtzionamendu gastuen zati bat besterik ez da jasotzen finantzaketan eta ez dira kontuan hartzen zentro horiek dituzten inbertsio beharrak.

Funtsean, Hezkuntza Departamentuak eta Ongizate Departamentuak finantziatutako programak dira, eta ez daude behar bezala bereiztuta prestakuntza programak, eta horiekin batera doazen neurriak; lehenak Hezkuntza Departamentuak finantziatzen ditu, eta, bigarrenak, zerbitzua jasotzen dutenak kontuan izanik, Gizarte Ongizate Departamentuak finantziatu beharrekoak dirudite.

2.- Ofizialki aintzat hartzea, edo, hobe esan, ofizialki aintzat ez hartzea: Hezkuntza Departa-

mentuak ez ditu onartzen curriculum egokituko unitateak -UCAk, alegia.

Momentu honetan, eta azken urte hauetan gertatutakoa ikusita, nolabait ere erantzun zaie hainbat profesional eta bolondresen ahalegin konprometituen arazoei, eta baita geroz eta indar gehiago duten arazo berriei, hala nola adimen-osasun arazoak, bazterkeri arazoak, legez kontraktotasun arazoak, etab. Hori dela eta aurkeztu dugu Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren aurrean hurrengo erabaki proposamen hau:

Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio bederatzila hilabeteko epearen barrenean Nafarroa osorako tailer-eskolei buruzko plan bat egin dezala, eta hori egin dezala departamentuen arteko batzorde baten bidez -hezkuntza, gizarte ongizate, osasun eta lan departamentuak har ditzala, gutxienez- eta parte har dezatela, baita ere, egun Nafarroan dauden tailer-eskoletako ordezkariak, horrelako programak dauden udalek eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak. Plan horrek kontuan izan beharko ditu merindade bakoitzean dauden beharrak: zentro beharrak, giza talde, hornidura eta inbertsio beharrak. Halaber, plan horrek kontuan hartu beharko du zentro horien eta administrazioaren arteko harremanaren eredua. Horrela lortuko da behar dutena ematea gizarteratzeko behar gorrian daudenei, eta, orobat, zentro horiei beharrezko egonkortasuna ematea.

Iruñean, 1999ko azaroaren 30ean

Foru Parlamentarioak: Shanti Kiroga Astiz, Isabel Arboniés Bermejo, Juan Cruz Alli Aranguren eta José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Komunitateko ingurugiroaren egoerari buruzko informazio orokorra igor dezan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko abenduaren 2an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko Erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Komunitateko ingurugiroaren egoerari buruzko informazio orokorra igor dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko abenduaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Komunitateko ingurugiroaren egoerari buruzko informazio orokorra igor dezan**

"Nafarroako Gobernua premiatzen da gure komunitateko ingurugiroari buruzko informazio orokorra eman dezan urtero. Informazio hori idatzi emanen zaio hala eskatzen duenari."

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontrolak egin ditzan tatuajeak egiten diren lekuetan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko abenduaren 2an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko Erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontrolak egin ditzan tatuajeak egiten diren lekuetan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko abenduaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontrolak egin ditzan tatuajeak egiten diren lekuetan**

"1.- Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio aldizka egin ditzala beharrezko kontrolak, Osasun Departamentuaren bidez, gorputzean zuloak egiten dituzten lekuetan; hain zuzen ere, azalpean tatuajeak egin eta belarritako eta zintzilikarioak jartzen dituzten establezimenduetan. Horrela establezimendu horiek erregistratuta egonen dira. Orobat, establezimendu horietako arduradunen kualifikazioak agertu beharko du, eta kontrolatu egingen dira erabiltzen diren produktuak eta tresnak.

2.- Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio arautu ditzala jarduera horien alderdi oro, eta, horrela, berma dadila herritarren osasuna."



## **Adierazpen politikoa. Horren bidez Iñigo Egiluz kooperante euskaldunaren heriotza eta Jorge Luis Mazo apaiz kolonbiarrarena argitzeko eskatzen da**

### **BOZERAMAILEEN BATZARRAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzarrak, 1999ko azaroaren 30ean eginiko bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Kolonbian, Chocó-ko Departamentuan, azaroaren 18an izandako gertakari larriei buruz, zera ADIERAZTEN DU Nafarroako Parlamentuak:

Elkartasuna agertu nahi diegu Iñigoren eta Jorgeren senideei eta lagunei, kolonbiarren eskubi-deen aldeko lanean hil baitira.

Laguntzeko prest gaudela adierazi nahi diegu Hirugarren Mundua eta Bakea gobernu kanpoko erakundeari.

Gertakariak argitzeko galdatzen dugu. Horregatik **ESKATZEN DIEGU**:

Kolonbiako Estatuari:

Talde paramilitarrak eraso eta deuseztatzeko; orobat, Indar Publikoaren eta talde paramilitarren artean egon litezkeen loturak xeheki eta inpartzialtasunez ikertzeko; horretarako, Egia Bilatzeko Batzorde bat sortuko da, paramilitarrek gizateriaren kontra egindako krimenak zigor ditzan.

Lekuz aldatutako taldeei laguntza duina emateko, eta, euren jaioterrira itzultzean, taldeon segurtasuna bermatzeko.

Berma dezala errespetatuko direla bai giza eskubi-deen defendatzaileen segurtasuna, bizitza

eta lana, bai lankidetzako eta laguntza humanitarioko erakundeen jarduera.

Bakea bilatzeko konpromiso irmoa har dezala, eta, hala, pobrezia eta gizarte-desberdintasunen kausak deuseztatzeko politikak ezar ditzala.

Europako, Estatu eta autonomietako erakundeei:

Adierazpen publikoak egin ditzatela, Kolonbian gertatzen ari den giza-eskubi-deen urraketa salatzeko; Kolonbiako Gobernuari bere erantzukizuna eskatzeko, nazioarteko erakundeetan; eta Kolonbian gizarte-justizia eta bake prozesu bat bideratzeko ekimenei laguntzeko.

Babesa emateko, Jorge Luis Mazoren eta Iñigo Egiluzen heriotzak argitzearren hasi den ikerketa judizialeko jarduketei; eta jarduketa hauen jarraipena egiteko.

Konpromiso sendoa ager dezatela, giza-eskubi-deen defendatzaileak lagunduko dituztela nazioartean, eta gobernu kanpoko erakundeei eta xede bera duten kooperanteei laguntza emanen dietela, kontuan izanik bai printzipio humanitarioek agintzen dutena bai giza duintasunaren defentsa.”

Iruñean, 1999ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Adierazpen politikoa, ETAk su-etena bukatutzat eman duela-eta

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Bozera-maileen Batzarrak aldez aurretik erabakia hartu ondoren, 1999ko abenduaren 13an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen besteak beste:

**Lehenengo.-** Nafarroako Parlamentuko Nazioarteko Elkartasun eta Elkarbizitza gaietarako Batzordeak iragan abenduaren 4an Mahaiari igorritako adierazpena berrestea. Hona, hitzez hitz, haren testua:

“Nafarroako Parlamentuko Nazioarteko Elkartasun eta Elkarbizitza gaietarako Batzordea ETAk su-etena bukatutzat eman ondotik sortutako egoera aztertzeko bildu da, eta erabaki du ondoko erabaki proposamena igortzea Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, aintzat har dezan:

1.- Elkarren artean egindako hausnarketa –bat ez datozen aukera politikoetatik egina– ontzat jotzea. Argi geratu da elkarrizketa politikoa posible dela, eta horrenbestez, batzorde hau herritarren arteko elkarbizitzari buruzko eztabaida-leku eta bakerako elkarrizketa-gune bihurtzen ahalko da.

2.- ETaren 1998ko iraileko su-etenak atea zabaldu zion bakea lortzeko esperantzari.

Gaur, tristuraz eta kezka ikusten dugu ETAk su-etena bukatutzat eman izana, baina oraindik ere pentsatzen dugu bakea lortzeko ahaleginak egiten jarraitu behar dugula.

Gatazkak konpontzeko formula politikoak ondokoa izan behar du: bide demokratikoak ontzat hartzea.

Elkarrizketa, tolerantzia eta jarrera benetan bakezaleak beharrezkoak dira oraindik ere indarkeria gainditzeko.

3.- Indarkeria berriro erabiltzeko ETaren erabakia dela-eta, batzordeak bere egiten du nafarren kezka, eta horren aurka dagoela adierazteaz gain, halakorik ez egiteko exijitzen dio.

4.- Elkarbizitza baketsu eta askatasunezkoaren aldeko apustua egiten dugu, eta dei egiten diegu herritarrei bakearen alde deitzen diren agerrialdi guztiekin bat egin dezaten.”

**Bigarren.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 1999ko abenduaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Adingabeei alkohola saltzea eta horiek alkohola edateari buruzko galdera***JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko abenduaren 13an egindako bilkuran, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak adingabeei alkohola saltzea eta horiek alkohola edateari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko abenduaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**GALDERAREN EDUKIA**

Juan Cruz Alli Arangurenek, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Adingabeei alkohola saltzea eta horiek alkohola edatea kezkarri zaio gizarteari orokorrean; beraz, egoki da herritarren ordezkari politikoek ezagutzea gai honen bilakaera eta baita interes-

garriak izan daitezkeen datu zehatzak ezagutzea, horrela beharrezko arauak onetsi ahal izanen baititugu.

Horregatik, Nafarroan adingabeei alkohola saltzea eta horiek alkohola edateari buruz, hurrengo galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Edari alkoholodunak edan dituzten adingabeei emaniko laguntzen kopurua eta izaera, osasun sare publikoko zentroetan.

2.- Zer ikuskaketa klase egiten diren edari alkoholodunak saltzen dituzten lekuetan, bereziki adingabeak sartzen uzteko baimena duten diskoteketan.

3.- Zer zehapen jarri zaizkien arauak betetzen ez dituztenei.

4.- Zer herritan den eskumena Foruzaingoarena eta zer herritan beste polizia batzuen.

5.- Zer ekintza zehatz egiten duen Nafarroako Gobernuak edari alkoholodunak edan ez daitezen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 23an

Foru parlamentarioa: Juan Cruz Alli Aranguren

## Eraikitako eta aurreikusitako parke eolikoei buruzko galdera

JOSE M<sup>a</sup> AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko abenduaren 13an egindako bilkuran, José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak eraikitako eta aurreikusitako parke eolikoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko abenduaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN EDUKIA

José María Aierdi Fernández de Barrenak, Eusko Alkartasunako foru parlamentarioa, "Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco" parlamentuko taldekoa, Bilzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta

ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Energi Planak, besteak beste, 2000 urtera arte, energia berriztagarrien aldeko politika tinkoa aurreikusten zuen; haize-energia da aipatu planaren oinarrietako bat.

- 1.- Zer parke eoliko egin dira gaurdaino?
- 2.- Zer produkzio ari dira lortzen? Hasierako aurreikuspenekin zer alde dago?
- 3.- Aurreikusitako zer parke ez dira egin? Zergatik?
- 4.- Zer parke egiteko asmoa dago hurrengo urteetan?

Iruñean, 1999ko azaroaren 30ean

Foru parlamentarioa: José María Aierdi Fernández de Barrena

## Zainketa berezien unitate mugikor medikudunean eramandako Aragoiko gaixoei buruzko galdera

ELENA TORRES MIRANDA FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko abenduaren 13an egindako bilkuran, Elena Torres Miranda foru parlamentario andreak zainketa berezien unitate mugikor medikudunean eramandako Aragoiko gaixoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko abenduaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN EDUKIA

Elena Torres Mirandak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du Osasun Departamentuak idatziz erantzun diezaion; hain zuzen ere, Tuterako Ospitalean Ara-

goiko herritarrak hartzeari buruz Osasun Kontseilari jaunak emaniko erantzunari buruz erantzun diezaion:

Urriaren 21ean galdera egin nuen Tuterako Ospitalean Aragoiko herritarrak hartzeari buruz, eta 1999ko azaroaren 23an jaso nuen erantzuna. Erantzuna, ordea, ez da osoa izan, ez baitaio erantzun galderan agertzen zen atal bati.

Emaniko zenbakiek erakusten dutenez, osasun zerbitzu horiek iaz baino gehiago erabili dira; osasun laguntzaren kostu ekonomikoa (1998ko urtariletik 1999ko irailera arte) banatuta agertzen da: kontsultak, sarrerak eta larrialdiak. Kostu horri ez zaio gehitu ospitale tertziario batera aldatzearen kostua eta ebakuntza kirurgiko bakoitzak duen kostua.

Hau jakin nahi nuke:

– Aragoiko zenbat gaixo eraman dituzten ospitale tertziario batera zainketa berezien unitate

mugikor medikudunean (aipatutako epe horretan).  
Laguntza horren kostu ekonomikoa.

– Osasun laguntzaren kostu ekonomikoa, gutzira, eta ebakuntza kirurgikoak (98-99ko iraila bitartekoak) eta lehen aipatutako ospitale aldatzeak barne.

– Kostu horren finantzaketa eta zein kontusaillek jasotzen duen.

Iruñean, 1999ko abenduaren 7an

Foru parlamentarioa: Elena Torres Miranda

---

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**1999ko azaroan izandako alta eta baja**

Baja: Javier del Castillo Bandrés jauna

Alta: José Andrés Burguete Torres jauna

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**José Andrés Burguete Torres foru parlamentario jauna «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldean sartzea**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, José Andrés Burguete Torres foru parlamentario jauna «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko

Taldean sartu dela jakitun dagoela adieraztea onetsi zuen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK**

---

## **Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolaketari buruzko Erregelamenduaren 13. eta 14. artikuluen aldaketa**

1999ko azaroaren 30ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, besteak beste, hurrengo erabakia hartu zuen:

Ikusi Legelari Nagusiaren txostena, non esaten den komenigarria dela Zerbitzu Orokorretako burua izendatzeko modua aldatzea –Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolaketari buruzko Erregelamenduak ezartzen du izendatze hori nola egingen den– eta Langileen Batzordeen txostena, eta, Biltzarreko Erregelamenduko 69.1 artikuluekin bat eta baita Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko hirugarren xedapen gehigarriarekin bat, hau ERABAKI DA:

**Lehenengo.** Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolaketari buruzko Erregelamenduaren 13. eta 14. artikuluen aldaketa onestea.

**Bigarren.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1999ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolaketari buruzko Erregelamenduaren 13. eta 14. artikuluen aldaketa**

**1. artikulua.** Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolaketari buruzko Erregelamenduaren 13. artikuluen lehen paragrafoa aldatu eta horrela geldituko da:

“13. artikulua. Teknikari administrariak egiten du Zerbitzu Orokorren buru eta berari dagozkio, Legelari Nagusiaren menpe, unitate organikoa eta unitate horretako langileak zuzendu, koordinatu eta kontrolatzea; horrela bete ahalko ditu, modu eraginkorrean, esleituta dituen funtzioak.”

**2. artikulua.-** Parlamentuko Administrazioaren Antolaketari buruzko Erregelamenduaren 14. artikuluen 1. eta 2. idatz-zatiak kendu egingen dira.

**Azken xedapena.** Aldaketa hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta orduantxe sartuko da indarrean.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat..... 6.000 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 140 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 175 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--